


Euskal kulturgintzak daukan
premia larrienetako bati erantzun
nahiean



Hizkuntza Minorizatuen Soziologi Biltzarrea, Faduran

Egun bakoitzak bere gai nagusia du, eta gaiaren eremu berean zenahit txosten, denetaram txosten eta komunikazio, 60tik gora.

Iruñeatik Fadurara

Kongresu hone gaia azaltzera jo aurretik, ager dezagun beronen nondiknorakoa. Duela pare bat urte hasten da honen historia. Euskararen, katalanaren eta gailegoaren egoera sozialak kezkatuak bildu ziren Iruñean gailego batzu, katalan multzo bat eta euskaldun andana bat, geroztik, Lleidan egin da beste bilera bat, eta azkena Galiziako Santiagon.

Nazioarteko Kongresu baten ideia hori hasiera hasieratik agertu zen. Iruñeako bilaeran bertan. Interesgarri ikusten zen gisa horretako bilera nagusi bat gure hizkuntzen egoera tamalgarrira aztertzeke, Estatuen hizkuntz politika txikitzailea salatzeke, irtenbide eta norabide berriak proposatzeko.

Hasierako ideia horren ildotik dator Kongresu hau. Euskal Herrian ospatzen denez, eta euskaldunok antolatzen dugunez, hemen aukeratu dugu gaia, agian gure-geure egoerari hurbiletik lotzen zaion gaia. Kongresuaren lege-erantzukizuna eta antolakizun teknikoaren zama, SEE edo Soziologoek Euskal Elkarteak hartu du bere gain.

Urriaren lehen astean 1etatik 5era hain zuzen, Soziolinguistikako Nazioarteko Longresu bat ospatuko da Getxoko Faduran, Bizkaian. «Hizkuntza minorizatuen soziologi biltzarrea»ren izenpean, euskara eta euskararen gisako hizkuntza minorizatuen normaltzeaz ariko da hainbat eta hainbat jende

Hizkuntza minorizatuen normaltzea da aztergaia

Gaiaren gaurkotasuna azpimarratu beharrik ez dago gure artean. Garrantziaz berebat jabeturik gaude guztiok. Egoki ere egoki etor dakiok euskaltzale askori Kongresu honen ekarria, euskararen egoera sozialaz duen larritasunari irteeraren bat aurkitzeko.

Biltzarrearen edukinari gagozkio larrik zer esan? Luze-zabala da programa eta ez dago puntuz puntu aritzerik, noski. Kongresuaren eskema eta lerro nagusi-nagusiak azlatzearekin konformatuko naiz.

Eskema argia (eta argigarria) du Batzarreak: Hasteko, lehen egunean, hizkuntza bat nola «minorizatzen» de (hobe: du-

ten) historian zehar azalduko du L. Aracil soziolinguista katalanak. Bigarren partean (bigarren eta hirugarren egunak) bi gai nagusi daude: R. Jaulin etnologo frantsesak egoera minorizatuaren analisia eta diagnostikoa egingo du. Eta hurrengo egunean, J. Cobarrubias soziolinguista amerikanoak hizkuntza minorizatu horren prozesua argituko. Kongresuaren hirugarren parteak plangintzari begiratzen dio. Nola planifikatu euskararen normaltzea eta berreskuraketa gizarartean, hezkuntzan, instituzioetan, horra R. Ninyoles soziolinguista katalanak, Txepetx linguista euskaldunak eta W. Mackey linguistika kanadiarrak arakatuko duten gaia.

Eta ez da hau dena. Izen handi eta sonatu hauen ondoan, izen txikiz eta ez hain txikiz bete dago Biltzarrea. Txosten nagusi hauen ondoan 10

mahainguru dago eremu bereko gaiez osaturik. 60ren batek parte hartzen du mahainguru horietan, lan puntual edo konkretu edo mugatuago baina biziki interesgarriekin, hala nola, «prozesu historikoen berrikusketa», «legislazio arazoak», «analisi soziolinguistikoko aplikatuak», «hizkuntz jarrerak», «hizkuntzaren normaltzea eta komunikabideak», «hizkuntza eta hezkuntza», «erakunde publikoak eta hizkuntza minorizatutak», «hizkuntza eta nazioa», «berdintasuna vs. bereizkeria».

Soziolinguistika eta euskara

Urgentziakoa aurkezpentxo hau aski da Soziolinguistikako Kongresu honen interesa adierazteko. Kongresu honek, esango nuke, euskal kulturgintzaren gaurko premia larrienetako bati —larriena ez bada— erantzuten dio. Euskararen egoera sozialak euskaltzale oro kezkatzen du egun. Kezkatu bakarrik ez: asko eta asko ikerketara, ekintzara, borrokara bultzatzen du. Ikerketaren, ahaleginaren, minaren eta borrokaren testuinguru horretan kokatzen da Kongresu hau.

Soziolinguistikaren gaurko erakarmen hau ez da moda iragankorra, norbaitek hala esan badu ere. Egia da jakintz alor jaioberria dela soziolinguistika, baina seguru gaude arrakastarik izango duela etorkizunean. Filologiak izan duen adina agian. Filologoz beterik ditugu bazterrak gaur, eta gauza ona da hori. Baina ez da aski, ez eta gutxiago ere. Behar beharrezkoa du euskarak soziolinguisti-

kak eskain lezakeen bidea, ikuspegia, sentsibilitatea. Hizkuntzaren izate soziala, errealtate soziala du estudiogai soziolinguistikak.

Euskal kulturgintzaren kontzeptu nagusienetako bat, azken aldi honetan, euskararen normaltzea da, ezaguna denez: erabilpena, gizarte presentzia osoa eta orokorra. Aurreko ha-

marrurtealdian «euskararen batasuna» izan zen kontzeptu eragile hori. Moda al zen hura? Ikusi da ezetz. Normaltzearena ikusteko dago, noski, baina ikusiko da ezetz. Euskaltzale askoren soziolinguistikarekiko atxikimendua edo erreferentzia ez da iragankorra, iraunkorra baizik, iraunkorra delako egoera bere problema eta guzti.

Esan nahi baita, euskararen egoeraz dugun kontzientzia horren hariko gogoetak, kontzeptuak, analisiak, soziolinguistikak eskaintzen dizkigula.

Espero dugunez, urriko Kongresu hau ez da hitz hutsetan agortuko. Behar diren salakuntzak, analisiak, diagnostikoa, proposamenak, egin on-

doren, eta horiekin batean, ikuspegi soziolinguistikoak Euskal Herrian aurrera egin dezan azpiegitura eratu egin beharko litzateke. «Instituzionaldu», hots, Elkarte zein talde soziolinguistiko bat osatu eta eratu. Aukera aparta eskaintzen digu Fadurak horretarako.

Joan Mari TORREALDAI

pintura

Amable pintorearen omenezko erakusketa

Sistiaga: «Etika-zentzu sakonez lan egin dut»

ARGIA.— Erakusketa hau Amable pintorearen omenez prestatu duzu.

• **SISTIAGA.**— Iaz muntatzeko asmoa nuen, baina Bilboko aideportuko keramika egiteko enkargua eman zidatenez atzeratu behar izan zen. Amable hiltzerakoan, bere omenez egitea erabaki nuen. Lagun mina izan da niretzat eta begirune haundia diot bai bere pertsonari eta bai bere lanari. Erakusketa prestatzeko motibo sakona izan da hau.

A.— Amable Arias zurekin batera egon zen «Gaur» taldearen sorreran.

S.— 65eko udazkenean biok izandako elkarrizketa baten ondorioz sortu zen «Gaur» taldea. CATEk eratzen zuen «Certamen de la pintura vasca» delakoari aurre egiteko erakusketa paraleloa egitea deliberatu genuen, arte sortzailea eta garaiko politika zehatz bati jokua egiten zion artearen arteko ezberdintasuna ikus zedin. Oteiza, Basterretxea, Mendiburu eta Txillidagana jo genuen. Azken honek Balerdiren presentzi jarri zuen baldintza gisa. Horrek atzeratu egin zuen projek-



«Aste kulturalen planteiamendua absurdoa, kulturak iraunkorra izan behar du eta».

Pintorea dugu Sistiaga, pintura pedagogiaren arloan landu duen pintorea, garai bateko «Gaur» talde ia mitikoaren partaide, lan aberats bezain askotarikoaren egile porrokatua, zinemagintzaren mundua ere ikertu duena. Orain 1958.tik 1984.ra bitarteko koadroez Amable Arias pintore eta lagun minaren omenez erakusketa antolajikoa prestatu du Donostian.

tua. Eta 66ko udaberrian izan zen Oteiza probintzia bakoitzetarako talde izen batekin etorri zitzaigunean: «Gaur», «Emen», «Danok», «Orain».

A.— Orain hamabost hogeit urte mugimendu bizia zebilen arte munduan.

S.— Aste kulturalen fenomeno dago hor, frankismoari egiten zitzaion jazarpen modukoak zirenak. Baina formulak ezin daitezke etengabe errepika. Gainera, aste kulturalen planteiamendua absurdoa da, kulturak iraunkorra izan behar du eta. Egia da garai hartan indarra zegoela, guztia zen ezezagun eta jendea erruz hurbiltzen zen erakusketetara, han eztabaidatu eta protesta egiteko. Gaur ez gara apasionamendu horrekin bizi. Gaur gauzak mastekatuak eman diezaguten eskubidea erreibindikatzeko dela dirudi. Orduan ofizialki ez zegoen ezer, eta gaur egun Eusko Jaurlaritzadugularik, arte kontenporaneo mailako nulitatea are haundia goa da, eta erreakzionarioa goa. Politika mailaz gain batzen gintuzten arte mailako ideiak genituen.